

«Yoga erakusteko, umeak ipuinen bitartez hunkitzen saiatzen naiz»



MAITE
ARRESE
Yoga-irakaslea eta
ipuin-kontalaria

hiruka

138. zenbakia

2018ko urriaren 18tik 24ra arte

Nazario, komikigile kontrakulturala

Getxoko Komiki Azokak omenaldia egingo dio Nazario Luque de Vera marrazkilari sevillarrari. Bera izan zen binetetan homosexualen istorioak irudikatzen lehenengoetarikoa. Urriaren 19tik 21era arte izango da azoka.



IPARRA GALDU GABE JARDUNALDIAK | 4

IPARRA ETA HEGOAREN ARTEKO ZUBIA EGITEKO

Getxoko Udalak eta Euskal Kultura Erakundeak antolatu dute ekimena; azken horretako zuzendariagaz berba egin dugu.

HIRUKA JARDUNALDIAK | 7

ZER JATEN DUGU ETA NORI EROSTEN DIOGU?

Elikagaien produkzio txikiko lau ekoizlek egunean azalduko dute hurbileko salmenta zuzenaren alde egindako apustua, Urdulizen.

EMAKUMEAK PALEOLITOAN | 8-9

HISTORIAURREA BERDINZALEAGOA ZEN

Paleolitoan ez zen lan-banaketarik ematen gizonen eta emakumeen artean; gainera, azken horiek jainkosatzat hartzen zituzten.

OIHANE ALBIZURI MOTOR-PILOTUA | 13

ETENGABEKO MARTXA NAZIOARTE-MAILARAINO

Pilotu lemoiztarrak joan den irail amaieran jardun zuen lehenengoz munduko moto-kroseko txapelketan, Italian.

«Daborduko egiten dizkidaten omenaldia»

Alí Babá y los 40 maricones argitalpenagaz amaitu zuen bere ibilbidea komikigintzan Nazariok. Binetaren munduan egindako lanagatik omenaldia egingo diote aste-akabu honetan, Getxoko Komiki Azokan.

KEPA UGARTE MARTIARENA ►

Getxoko Komiki Azokak zu omentzeak poza ematen dizu? Zer esatea gura duzu? Ilusio handia egiten didala? Kar, kar, kar. Nik, egia esan behar badizut, daukadan adinagaz, egiten dizkidaten omenaldiak ia-ia hil ostekoak direla uste dut. Oso ondo iruditzen zait nire lanak besteen aitortpena jasotzea, baina ez nintzen hasi atzo komikiak marrazten. Hala ere, pozgarria iruditzen zait Getxokoa bezalako azoka batean omenaldia egitea; jaialdi txikia izan arren, berbarako, Bartzelonako Komiki Azokak daukan mailara heltzeko gutxi falta zaiola esan daiteke.

Frankismoan helduen irakaslea izan zinen. Zerk eroan zintuen komikiaren munduan murgiltzera? Horri buruz liburu potoloa idatzi dut... Aipatu behar dut aurretik zortzi urte inguru eman nituela gitarra flamenkoa jotzen ikasten. Marrazteari dagokionez, txikitatik gustatu izan zait komikiak egitea. Baina egun batean albo batera uztea erabaki nuen. Bat-batean, erabat arrotza egiten zitzaidan ordura arte egindako komiki-erreduez (*El guerrero del antifaz* eta horren antzekoak) jarraitzea. Orduan konturatu nintzen eguneroko bizitzaren abenturak marraz nitzakeela. Horretan nenbilela, baten batek esan zidan Estatu Batuetan nik marrazten nituen komikien antzekoak egiten zituen jendea bazegoela: *underground* deitzen zieten. Hori ikusita, berriro ekin nion marrazteari; eta zorionez, Estatu Batuetako marrazkilari horiengan eragin handia izan zuen *Mad* izeneko aldizkari amerikarra topatu nuen, Sevillan. Bete-betean hasi nintzen binetak egiten; eta orrialde nahikoa neukanean, Bartzelonara joatea erabaki nuen. Aldizkari berri bat egiteko jendea aurkitu gura nuen; izan ere, nik jorratzen nuen estiloak ez zeukan lekurik merkatuan zegoen argitalpen batean ere ez.

Gay-en gainean marrazten zenuelako gertatu zitzaizun hori? Ez. Estilo kontua zen: Bartzelonan elkartu ginenok egiten genituen marrazkiek ez zeukaten lekurik *Mata Ratos*, *Muchas Gracias*, *Por Favor*, *El Papus* eta mota horretako aldizkarietan. Garai horretan *underground*-komikia izena ematen zitzaion guk egiten genuen horri. Hala, *El Rollo Enmascarado* argitaratu genuen, eta gure poltsikotik ordaintzen genituen beste hainbat komiki ere. Nire aldetik, *La piraña divina* plazaratu nuen. Hori dena nahiko marjinala izan zela esan dezakegu. Hala ere, apurka guk egiten genuen komiki-estiloa aintzat hartzen hasi ziren, marjinaltasun-itxura hori bazterrean utziz. Horregaz batera, ailegatu zen sasoi bat non *underground* berba komunikabideek baino ez zuten erabiltzen, gu sailkatzeko edo Estatu Batuetan zegoen izen bereko mugimendua aipatzeko. Lehenengoetarikoa izan nintzen komikiak gure poltsikoetatik ordainduta egiteari utzi eta lanen bat eskatzen zidaten aldizkarietarako jarduten.

Gayak komikietan marrazten ere lehenengoetarikoa izan zinen? Hasiera batean, nire emakumezko lagunen arazoetan oinarritzen ziren gidoiak egin nituen: emakumearen askapena; aita-amengandik, senarrengandik edo maitaleengandik sufritzen zuten jazarpena... Hala ere, emakumeek bizi zuten egoera nire eskuen bitartez adieraztea apurtxo bat artifizia zela



Gaur egun, etxeko balkoitik argazkiak ateratzea

Jazarpena txikitik
«Erljioa dela eta, jazarpen handia sufritu nuen, nire burua askatu nuen arte. Asko kostatu zitzaidan lokarri horiek haustea»

Helburu argia
«Komikiagaz zer edo zer defendatu behar banuen, horiek homosexualen eskubideak ziren, ni neu homosexuala nintzelako»

Ghettorik ez
«Beti pentsatu izan dut nik egiten nituen istorioak heterosexualei zuzendutako aldizkarietan argitaratu behar nituela»

pentsatzen hasi nintzen; zer edo zer defenditu behar banuen, horiek homosexualen eskubideak ziren. Hobekien ezagutzen nuen mundua zen, ni neu homosexuala nintzelako. Erljioa dela eta, jazarpen handia sufritu nuen umetan, nerabezaroan eta gaztetan, nire burua askatu nuen arte. Asko kostatu zitzaidan lokarri horiek haustea. Horrek denak heziketa-eredu horregaz kontuak kitatzera eroan ninduen. Arrazoi horregatik egin nuen gaur egun Madrilgo Reina Sofía museoa dagoen *Tentación, martirio y triunfo de San Reprimonio virgen y martir* izeneko bilduma.

Astindua eman gura zenien ordura arte Espainiako jendar-te tradizionalen errotuta zeuden oinarritzko balore moralei? Gogoan daukat orrialde bitara egindako *La Visita* istorioa. Binetetan beste bikote baten etxera iristen diren ezkonberriak ikus daitezke. Emakumeek dendaz denda joatea erabakitzen dute eta gizonak etxean geratzen dira. Eta, hara non, elkar atsegin dutela konturatzen dira gizonezkoak. Ohera joan eta txortan egiten dute. Gizon gazteenak daborduko argi utzi dio edadetuenari emazteari esan gura diola homosexuala dela, ez duela bizitza osoan ezkutuan ibili gura; adinez zaharragoa denak, oster, gordeta segitzea erabakitzen du.

Zabalpen handia izan zuen istorio horrek? Ez, ez zuen zabalpen handirik izan. Baten batek esan zuen gizon bik ohean egin dezaketenen dietario baten parekoa zela.

enaldiak ia-ia hil ostekoak dira»



gustatzen zaio Nazario Luque de Verari; erakusketak ere egin ditu. © ISAAC FLORES



Getxoko Komiki Azokan gorazarre

Nazario komikigilea eta margolaria omenduko du binetaren munduaren urteroko jaialdiak. Horrez gainera, Gasteizko Zuloa liburu-dendari ere gorazarre egingo diote, haren ibilbideagatik eta komikiaren mundua zabaltzeko egindako lanagatik. Getxoko Komiki Azoka urriaren 19tik 21era arte izango da, leku bitan: Areetako Xake plazako karpan (saltokiak) eta Romo Kultur Etxean (jarduerak eta fanzine-gunea). Azokaren kartela Raquel Córcoles artistak egin du, Moderna de Pueblo pertsonaia ospetsuaren sortzaileak.

Nazario Luque Vera (Castilleja del Campo, Sevilla, 1944) Espainiako komiki-munduko artista kontrakultural ospetsuenetako bat da. Sevillan Filosofia eta Letrak ikasi eta irakasle ibili ostean, 1970eko hamarkadaren hasieran Bartzelonan finkatu zen, eta lehen urratsak eman zituen komiki *underground*-aren munduan. Bertan sortu zuen *El Rollo* taldea, Javier Mariscal, Farry eta Pepichek artistek osatua, besteak beste; euren komikiak editatu eta banatu zituzten. Garai hartan argitaratu zituen *San Reprimonio*, *Sábado sabadete* eta *Purita* obrak, besteak beste. 1980ko hamarkadan *El Víbora* aldizkariagaz elkarlanean hasi zen, eta han argitaratu zituen bere komiki gehienak. Horien artean nabarmentzekoa da *Anarcoma*, 1970eko eta 1980ko hamarkadetakoa Bartzelona zitalean mugitzen den detektibe trabesti baten gainekoa.

Europako beste zenbait aldizkariagaz ere elkarlanean ibili zen, barbarako, *Makoki* agitalpenagaz. Azken horretan argitaratu zuen *Alí Babá y los 40 maricones*, bere lan gorentzat jotzen dena, eta horregaz amaitu zen bere ibilbidea komikiaren munduan. Une horretatik aurrera, pinturan ibili zen, 2008ra arte. Orain bere autobiografia zatika publikatzen eta argazkiak egiten dihardu.

Hala ere, ez zenuen aukera galtzen utzi. Zer gertatu zen? Halako batean pertsonaia bat asmatzea bururatu zitzaidan, 1977an gutxi gorabehera: *Anarcoma* izeneko detektibe trabestia. Hasiera batean, 1978an, orrialde bitara eta zuri-beltzean publikatzen hasi nintzen, *Rampa* aldizkarian. Baina argitalpen hori pikutara joan zen; gizonezkoak eta emakumezkoak biluzik ateratzen zituzten publikazio mordoa sortu zen garai horretan... Hori dela eta, 1980an, *El Víbora* agertu arte itxaron behar izan nuen berriro ere *Anarcomaren* istorioak argitaratzeko. Daborduko hamar eta hogeitaz artean marraztuta neuzkan; hala, koloretan ateratzea erabaki genuen. Arrakasta itzela izan zuen.

Zergatik erabaki zenuen *Anarcoma* beren-beregi homosexualentzat ez den aldizkari batean argitaratzea? Beti pentsatu izan dut nik egiten nituen istorioak heterosexualei zuzendutako aldizkarietan argitaratu behar nituela. Inoiz ez ditut ghettoak edo, bereziki, homosexualentzat baino ez diren elkar-guneak atsegin izan. Hortaz, ez nion zentzurik ikusten *Anarcomaren* istorioak homosexualiei zuzendutako argitalpen batean plazaratzeari. Jende guztiarentzako publikazioak nahiago nituen horretarako: gogoko ez zuenak ez zuen zertan irakurri. Ez dago ezelako arazorik. Gainera, jende askok eskertu izan dit *Anarcomaren* istorioak askatasun horregaz argitaratu izana. Kontuan hartu behar dugu homosexualak garen denok ez garela Bartzelona, Madril eta halako hiri handietan bizi; asko hiri

Egilearen argitalpen batzuk



El Víbora

Nazario egin zuen *El Víbora* aldizkariaren lehenengo zenbakiaren azala, 1980an. Heterosexualei zuzendutako argitalpenean marrazten zituen homosexualen istorioak.



Anarcoma

Marraskilari sevillarrak arrakasta lortu zuen berak asmatutako *Anarcoma* pertsonaiagaz; 1980ko hamarkadako Bartzelonarik zitalenean mugitzen zen detektibe trabestia zen.



Alí-Babá y los 40 maricones

Argitalpen honegaz amaitu zuen bere ibilbidea komikigintzan Nazario Luque de Verak. Beraren lan gorentzat jo izan dute askok eta askok.



La vida cotidiana del dibujante underground

Bere autobiografiaren lehenengo zatia da. Aurtan atera du bigarrena: *Sevilla y la Caseta de las Pirañas*. Beste atal bi geratzen zaizkio argitaratzeko.

edo herri txikietan bizi dira. Horrelako eduki bat euren eskuetara heltzeak, neurri batean, askatzeko balio izan zien horiei denei. Erabat jazarrita eta ezkutuan bizi zuten euren sexualitatea; horrelako argitalpen bat egunkariakaz batera kioskoetan saltzen zela ikustea lagungarria izan zen eurentzat.

Arazoak ekarri zizkizun mota horretako komikiak marrazteak? Ez. Nahiko bitxia izan zen: 1975ean, ezkutuan argitaratu behar izan nituen nire istoriorik gordinenak, *La Piraña Divina* bilduman. Ordura arte ez nuen aukerarik izan horiek Espainian publikatzeko eta Frantzia egin behar izan nuen, 1973an. Hala, 1977an, *San Reprimonio y las Pirañas* atera nuen, eta orduan Terenci Moix idazleak egindako hitzaurrearen kontra baino ez zuten egin, masturbazioaz eta kanpaia jotzeaz berba egiten zuelako. Baina nire istorioez ez zuten ezertxo ere esan. Arazoak askoz lehenago izan ziren, *Star*, *Ajo blanco* eta guk egiten genuen *El Rollo Enmascarado* aldizkariak bahitu zituztenean. 1980 heldu orduko ez genuen ezelako arazorik izan *El Víbora* aldizkariagaz. *Anarcomaren* bilduma plazaratu nuenean ere agudo argitaratu zuten Frantzia, Italia, Alemanian, Ingalaterran... Oztopo bakarra, beharbada, Estatu Batuetan izan zen: *Anarcomaren* bilduma plastikoz biltzera eta sex-shopetan saltzera behartu zituzten argitaratzaileak. Zentsuratzeko modu burutsuago bat zen. Izan ere, debekatu ez arren, gutxi batzuk joaten diren lekuetan saltzera behartzen zuten. ◀



Sarritik Borobiara

PAUL BILBAO SARRIA
Kontseiluko
Idazkari Nagusia

Herri modura erantzun dezagun

Aurrekoan lagun batek esan zidan azken boladan behin eta berri agertzen naizela prentsan Nafarroako euskararen egoeraz hitz egiten. Egia esan, kezka sortu zidaten hitz haiek, bazirudielako Nafarroa urrunetik ikusten zuela, edota nafarren arazoez ari nintzela; hirugarren batzuek.

Bi estatu eta hiru administrazioen mende gauden arren, euskal hizkuntza-komunitatea bakarra da eta lurralde bakarrean bizi da, euskararen herrian, Euskal Herrian. Hartara, erantzukizunagatik edozein lurraldetako euskaltzaleok kezka izan beharko genuke Euskal Herriko beste edozein txokotan gertatzen denaren inguruan.

Hamarkadak eman ditugu Nafarroan herritarrei hizkuntza-eskubideak bizi diren herriaren arabera aitortzen zaizkiela salatzen. Beste edozein eskubidetan ez bezala, kokatuta zauden tokia da eskubideak aitortzeko edo ez aitortzeko irizpidea. Hartara, nafar gehienak, alegia, milaka eta milaka euskal herritar, lege eskubidez gabeturik daude.

Aukera zabaldu da orain egoera hori iraultzeko, eta horretarako komunitatea kalera ateratzeko deia egin du Kontseiluak. Euskaraz bizi nahi duen herri baten gogo indartsua irudikatzen beharra aldarrikatu du, Nafarroako Parlamentuak justizian, kohesioan eta berdintasunean oinarrituko den hizkuntza-lege berria onartu dezan.

Afera ez da solidaritatea edo elkartasuna. Honen guztiaren muina erantzukizuna da. Erantzukizunez jokatu behar dugu, herri modura erantzun behar dugu. Urriaren 27an Euskal Herri osoko herritarrok, Uribe Kostakook barne, euskaldunon eskubideen aldeko hitzordua dugu Iruñean. Herri modura erantzun dezagun.

PANTXOA ETCHEGOIN | Ipar Euskal Herriko Euskal Kultura Erakundeko zuzendaria

«Euskarari esker zubiak egin ditzakegu»



Pantxoa Etchegoinek zuzentzen duen Euskal Kultura Erakundeak eta Getxoko Udalak antolatu dituzte Iparra Galdu Gabe jardunaldiak. © INAKI LL

Ipar Euskal Herria hurbiltzeko jardunaldiak egiten ari dira egunotan Getxon. Aurten, ikuskizunez, solasaldiez eta ekitaldiez gainera, euskal nortasuna adierazten duen euskal dantzari buruzko erakusketa egongo da ikusgai.

IKER RINCON MORENO ►

Iparra Galdu Gabe jardunaldien 8. edizioa hasi da Getxon. Zein da horien helburua? Bada hagi urte horiek antolatzen hasi ginetik, eta bi urterik behin antolatzen den programa da. Nahiko sinplea da gure helburua: Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko kultura-harremanak indartzea. Guk konbentzituak gara horiek indartzen direla, zeren muga fisikoa izan dezakegun arren, gure harremanak indartu ditzakegu mota honetako ekimenak egiten baditugu. Hemengo artistak hara eramaten ditugu, trukaketa hori indartzeko.

Aurten, gainera, euskal dantzari tarte handia eskaini diozue... SOKA, euskal dantzaren urratsetan erakusketa Euskal Kultur Erakundeak ekoiztu du; hainbat tokitan ibili da eta arrakasta handia ukan du. Multimedia-erakusketa da eta horren xedea da publiko zabal bati euskal dantzaren hainbat kontakizun ezagutaraztea. Jendeak pasatu ahal ditu lau ordu horretan, zeren eta orotara badira laurhun bideo, argazki eta lekukotasun.



Koldo Zabala koreografoa omendu dute

Jatorri getxoztarra eta bizitzaren parte handia Iparraldean dantzak erakusten eman zuen Koldo Zabala (1935-2014) koreografoaren Maite Iriarte emazteari oroigarri bat eman diote jardunaldien barruan.

Zeintzuk dira Ipar eta Hego Euskal Herriaren arteko desberdintasun nagusiak? Desberdintasun anitz badira. Hemen ez dago hiri handirik, beraz demografia aldetik badago diferentzia. Bai paisaia aldetik, bai demografia aldetik, bai historia aldetik ere, diferentziak badira. Hala ere, nik azpimarratu nahi nuke diferentzia horiek baino gehiago badugula hizkuntza bat, harremanak indartzeko parada ematen diguna. Euskarari esker eta kulturari esker zubi horiek egin daitezke, eta benetan hori da garrantzitsua.

Zelan bizi da euskal kultura Ipar Euskal Herrian? Euskal kultura bizi-bizia dago hemen. Betidanik izan da hemen kultura-mugimendu handi bat. Anitz elkarte eta artista badira. Bada ere atxikimendu bat euskal kulturarekin eta errango nuke anitzek zaintzen badugu gure euskal ondarea gaurko artistak eraberrituko direla. Hainbat sorkuntza badira ere; adibidez, memento honetan euskal dantzaren alorrean badira hainbat proiektu berri, baita beste alor batzuetan ere, eta hori biziki baikorra da.

Eta, zer egoera du euskarak bertan? Erran behar da euskararen atxikimendua badela, eta gero eta gazte gehiago doazela ikastoletara eta eskola elebidunetara. Baina, dudarik gabe, desafioa dago, euskara kinka larrian dagoelako: gutxienez %70 ez da euskalduna. Euskara ez da galdu, baina zaindu behar da. ◀

ERANDIO | Aurrekontu parte-hartzaileak

Herritarrek bikoiztu egin dituzte udal-kontuetaarako ekarpenak

Joan den irailean, Erandioko Udalak udal-aurrekontuak osatzeko prozesu parte-hartzailea abiarazi zuen, hirugarren urtez segidan. Ekimenean 368 auzotar inplikatu ziren, iaz baino 152 gehiago, Udalaren arabera. Denera, 925 ekarpen egin zituzten erandioztarrek; 2017an, 520 izan ziren.

IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ►

Aurrekontu parte-hartzaileak osatzeko kanpaina jasotako emaitzak argitaratu eta ezagutarazi ditu Erandioko Udalak. Ibatuz SL enpresak erredaktatutako txostenaren arabera, irailean 368 inkesta jaso ziren; 58 auzotarrek Internetez egin zituzten euren ekarpenak, beste hamazortzik auzoetan ipinitako postontzi berezietan utzi zituzten, eta gehienek karporen batean eman zituzten. Azken hori egin zuten 292 lagunek.

Gaiei dagokienez, 925 ekarpenetatik erdia baino gehiago, 530 (%57,8), Hirigintza, Etxebizitza, Obrak, Zerbitzuak eta Ingurumena udal-sailagaz lotuta daude. Espaloiak eta errepi-deak konpontzea izan da atal horretako eskari ohikoena; 117 ekarpen batu dira ildo horretan. Proposamen batzuk orokorrak izan dira eta beste batzuk, berriz, oso zehatzak.

Aparkalekuen inguruan 96 iradokizun eman dituzte erandioztarrek, gehienetan aparkaleku publiko gehiago eta hobeak gura dituztela adierazteko. Askok egindako beste aldarrikapen bat izan da umeen eta zaharren parkeei eta gazteentzako aisialdi-guneei dagokiena: 74 proposamen egin dira parke horiek zabal eta estal daitezen eskatzeko. Hirugarren eskari ohikoena berdeguneak eta lorategiak sustatzekoa izan da. Hala, 48 ekarpen jaso dira ildo horretan; eurentako 37k beren-beregi aldarri-

katu dute «gutxiago eraikitzea». Ekologismoagaz jarraituta, 36 proposamenetan jorratu dira garbiketa eta hondakinen kudeaketa. Bestalde, 25 ekarpen egin dituzte hiri-altzarien gainean eta 21 txakurren inguruan, alde batetik animalien aisialdia hobetzeko eta, beste batetik, euren ugazabek arautegia betetzen dutela kontrolatzeko. Bidegorriak eta irisgarritasuna ere gai garrantzitsuak dira, eta 18na proposamen jaso dituzte.

Kultura, Gazteria eta Kirolak sailerako, berriz, 155 proposamen aurkeztu dituzte, guztien % 16,8. Horien artean, kirol-eta zerbitzu-instalazioak hobetzea gomendatu dute 54 lagunek eta beste hamalauk igerilekuak eskatu dituzte; kultura sustatzea, 44k; eta gazteentzako eta gaztetxoentzako guneak aldarrikatu dituzte 28 pertsonak.

TXAKUR-GOROTZAK ETA SEGURTASUNA. Udaltzaingoari bidalitako 96 (% 10,4) ekarpenetatik, ia denak multzo bitan banatuta daude: euren txakurren gorotzak batzen ez dituzten ugazabak zigortzea proposatu dute 53 lagunek; beste 40k segurtasun handiagoa eskatu dute. Beste arlo denetan, guztira, 144 iradokizun jaso dira, % 14,8. Horien artean gai oso ezberdinak daude. Berbarako, hamazortzi pertsonak proposamenak egin dituzte gizarte-laguntzen inguruan; hamahiruk pertsona nagusien dantzaldiak eta bestelako jarduerak eskatu dituzte; enplegua sustatzeko pausoak ikusi gura dituzte hamazazpi erandioztarrek; garraio publikoa hobetzeko hainbat neurri proposatu dute hamazortzik; hamahiruk zerga gutxiago ordaindu gura lukete; eta hamabik uste dute hezkuntza-zentroak hobetu beharra dagoela.

Ohi legez, euren iritzia eta proposamenak aurkeztu dituzten auzokide gehienak Altzagakoak (185) edo Astrabudukoak (168) izan dira. Ostera, auzo txiki denen artean hamahiru parte-hartzaile izan dira: zortzi Erandiogoikoan, bina Arriagan eta Goierri eta bakarra Lutzana-Enekurin. ◀

%56

izan da emakumezkoen parte hartzea, aurrekontuei ekarpenak egin dizkieten auzotarren artean. Halere, aurtengo gizonen inplikazioa handitu da: % 42 izatetik % 44 izatera pasatu dira.

36-50


urte bitarteko adin-multzoa izan da parte-hartzaile gehien batu duena: 126k eman dute iritzia Erandioko udal-aurrekontuez. Ostera, 16-25 bitarteko gazteek izan dute eraginik txikiena: 32k baino ez dute egin ekarpenen bat.

Gabon hauetan, HIRUKALAGUN guztien artean, Errigoraren lau saski zozkatuko ditugu. Nafarroa hegoaldeko baratza dastatzeko eta euskara bultzatzeko egundoko aukera! Egin zaitez HIRUKALAGUN eta zuk ere zozketan parte hartu!

ZOZKETAN PARTE HARTZEKO

administrazioa@hiruka.eus

944 911 337



IÑIGO CABACAS LEIOA TALDEA | Elkartasuna EHUn

«Ikasleok ez dugu asko espero epaiketa honetatik»

Cabacasen senideek euren esperantza apurrak epaiketan dituztela badakiten arren, EHuko Leioako campuseko ikasleek ezer gutxi espero dute auziaz. Ertzainei absoluzioa ematen badiete, mobilizatu egingo dira.

KEPA UGARTE MARTIARENA ▶



Cabacasen hilketaren urteurrenean manifestazioa egiten dute Leioako campusean. © ECUADOR ETXEA

Zergatik sortu zenuten Iñigo Cabacas Leioa taldea? Zientzia Politikoetako lehenengo ikasturtea egiten geundela, lauzpabost lagun elkartu ginen unibertsitatean hutsune bat zegoela sumatu genuelako. Iñigo Cabacasen hilketaren urteurrenean, EHuko Leioako campusean *Pitu*-ri omenaldi bat egin behar zitzaioela uste genuen. Daborduko lau urte igaro dira.

Ordutik hona mobilizazioak egin dituzue campusean? Bai. Lehenengo urtean elkarretaratze bat egitea erabaki genuen eta ikasle ugari bat egin zuen deialdiagaz. Egun horretatik aurrera manifestazio ugari egin izan dugu, ikusten genuelako aldarrikapen honen inguruan jende gehiago batu genezakeela. Gainera, gauza nahiko bitxia gertatu zitzaigun: hasieran Iñigo Leioako campuseko ikaslea izan zenik ez genekien, baina, egun batean haren gurasoak etorri ziren guk deitutako elkarretaratzerara, eta ordutik etengabeko harremana daukagu eurakaz.

Orain arte oztoporik ipini al dizue EHuk? Iñigo Lan Harremanetako ikaslea izan zela jakinda, bigarren urtean erabaki genuen manifestazioa egitea Mikel Laboa plazatik berak ikasitako fakultatera, eta han *Pitu*-ren omenezko plaka bat ipintzea. Hori dena aurrera erateko, unibertsitateko arduradunakaz berba egitea bururatu zitzaigun, baina euren erantzuna ez zen



Justizia gura dute

Ertzaintzak jaurtikitako gomazko pilota batek buruan jo zuen Iñigo Cabacas 2012ko apirilaren 5ean, Athleticen garaipena ospatzen zebilela, eta zauri larriak eragin zizkion. Bost egun geroago hil zen. Auziaren instrukzioa luzea, korapilatsua eta oztopoz beterikoa izan zen, eta, azkenik, Ana Torres Bilboko auzitegiko epaileak epaiketa egiteko tramiteak hasi zituen iazko apirilean, hilketa gertatu eta bost urtera. Azaroaren 9ra arte iraungo du.

izan espero genuena: Lan Harremanetako dekanok ezezkoa eman zigun, Iñigoren familiari doluminak helarazi zizkioten arren, «auzia argitu barik» zegoelako eta Iñigo nork hil zuen ez zekitelako. Berdin-berdin ipini genuen plaka; ez zen ezelako arazorik egon.

Ze espero duzue orain egiten dabiltzan epaiketaz? Ba, egia esan behar badugu, ikasleok ez dugu asko espero epaiketa honetatik: ertzain denak ez daude jesarrita akusatuen aulkian, eta gainera, jesarrita dauden artean kontraesan asko ematen ari dira. Epailea nahastu gura dute. Gainera, gure ustez, Iñigo hil zutenean Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo sailburua zen Rodolfo Aresen egon beharko luke akusatuen artean, eta *Ugarteko* ere bai. Tamalez, epaiketa da Iñigoren sendiari gertatzen zaion helduleku bakarra, justizia egingo delako esperantza mantentzeko.

Mobilizatzen jarraitu beharko duzuela ikusten duzue? Fiskaltzaren zigor-eskaera hutsaren hurrengo da; ematen du aurretik dena lotuta zeukatela. Gehien jota, lehenengo ofizialak eroan lezake zigorren bat. Espero dugu ez gertatzea; baina, absolbitzen badituzte, mobilizaziora deituko dugu Leioako campusean. Zalantzarik ez izan. ◀

2019rako Egutegi Pertsonalizatuak

Zure argazkiekin pertsonalizatu!



Villa de Plentzia, 6 · 48930 AREETA
www.cianoplan.es · 902 103 763



Eredu berria

HIRUKA JARDUNALDIAK | Elikagaien salmenta zuzena: Nori erosi behar diogu jatekoa?

Elikagai-ekoizle txikienak, kontsumo arduratsuaren alde

Elikadurari eta hurbileko salmentari arreta ipiniko die HIRUKAren jardunaldien bigarren saioak, egunean, Urdulizko Etxeandia garagardotegian. 19:00etatik aurrera, lau ekoizleak euren ikuspuntuak azalduko dituzte.

IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ►

Udagoieneko eguenetarako hainbat hitzordu proposatu die HIRUKAk Uribe Kostako euskaldunei. Herriz herri, zenbait gai jorratuko ditugu, abenduaren 13ra arte; bide batez, komunikazio-proiektuaren berri emango da.

Hala, eguen honetan, «Nori erosi behar diogu jatekoa?» goiburupen, elikagaien salmentako hurbileko zirkuituez jardungo dute inguruko lau gonbidatuk. Salmenta zuzenak dauzkan abantailak eta zailtasunak jorratuko dituzte Haizea Bengoetxea, Arrietako marmelada-ekoizleak, Jon Etxeandia, Urdulizko garagardogileak, Gabi Basañez, Sopelako okela-ekoizleak eta Jabi Peña, Algortako esneki-ekoizleak. Moderatzaile-lanetan ibiliko da Unai Brea, HIRUKAko kazetaria.

Haizea Bengoetxeak aurreratu duenez, Olatxu baserriko bere eskarmentua azalduko du Urdulizen: «Produktore txikiak gara eta azoka eta komertzio txikien bitartez komertzializatzen dugu. Batez ere zuzeneko salmentaren bidez funtzionatzen dugu». Ekoizleen aldetik mugimendua ikusten du: «Apustu bat egin da agroekologiaren alde eta jendea badabil nekazaritzan lanean baina proiektu asko hasi berri daude; hor badago etorkizun bat, baina badago saretxo baten beharra ere, proiektu txiki guzti horiek plazara atera ahal izateko».

Bengoetxeak uste du kontsumo-ohituretan izandako aldaketek ez dietela ekoizle txikiei laguntzen. Haren arabera, gaur egungoa «momentuko kontsumoa da, berbarako, kozinatzea alde batera utzi duen kontsumoa, dena hartu, jan eta bota egiten duena». Kexu da ere, kontsumitzaileen ohituretan merkataritza-guneen ordutegiak eta modu «nahiko inpersonalak» sartu direlako. «Kontsumo-eredua horretara doa, azkar ibiltzera, azkar jatera, kontsumitzera eta horren gaineko kontzientzia ez da hainbeste landu». Kontrako aldean, otzaren dinamikan sartuta dagoen jendea eta herriko komertzioetan kontsumitzen duten



Jon Etxeandia garagardogilea izango da HIRUKAren jardunaldietako bigarren saioa anfitrioi. OSKAR GUTIERREZ

«Apustu bat egin da agroekologiaren alde; hor badago etorkizuna, baina saretxo baten beharra ere badago, plazara ateratzeko»

HAIZEA BENGOTXEA
OLATXUKO LABOREAK

«Baserrietako ekoizpen txikiak mantenduko badira aldaketa kulturala eman beharko da, jendearen jateko eta erosteko ohituretan»

GABI BASAÑEZ
BASERRITARRA ETA OKELA-EKOIZLEA

pertsonak eredugarriak dira Bengoetxearentzat, «baina orokorragoa da beste inertzia hori». Gabi Basañezek ere arreta ipintzen dio kontsumitzaileen rolari. Baserritar eta okela-ekoizleak uste du produkzio txikiak mantentzeki begira, «aldaketa kulturala» egin beharra dagoela. Jendeak jateko eta erosteko ohituretan aldaketarik egingo ez badu «ez da egongo modurik horri eusteko», bere esanetan: «Jendeak utzi behar dio gura duena, gura duen sasoian, moduan eta ordutegian erosteari. Hori da kapitalismoak eskaintzen diona».

Baserrietako produkzio txikiak mantentzeko, kontsumitzaileen taldeak beharko liratekeela ohartarazi du Basañezek: «Tal-de-lana». Oilaskoak ipini ditu adibide: «Hamar pertsonarentzat produzitzea egokiagoa da. Ezin ditugu oilaskoak produzitu jakin barik nori salduko dizkiogun». Planifikazioaren eta jarraitutasunaren defentsa egin du: pertsona edo talde bakoitzak aurretik adierazi beharko luke epe ertain batera zer erosiko duen, «baina horrek eskatzen du kontsumitzaile arduratsuak egotea; gaur egun, kontsumitzaile ardura bakoak ditugu». ◀

TXIBERRI
edantokia

Frontoi partikularra,
terrazza estalia,
bokatak,
artisau-garagardoak,
eramateko tortila osoak
eta askoz ere gehiago.



Gustora egoteko behar duzun guztia!

Aita Gotzon kalea, 4 • URDULIZ • 946.760.715

Historiaurrea

Paleolitoan ez zegoen lan-banaketa berezirik gizonen eta emakumeen artean. Azken horiek umeen zaintzaz arduratzen ziren arren, ehizan ere parte hartzen zuten, gizataldeko gizonakaz batera. Gainera, emakumea jainkosa balitz bezala hartzen zuten inoiz, ugalkortasunaren eredu.

IKER RINCON MORENO ►

Emakumeek historiaurrean izan zuten garrantzia aztertuko dute zapatuan, urriaren 20an, Sopelako Kurtzio kultur etxean, Ondarearen Europako Jardunaldien barruan. Horretarako, Olivia Rivero arkeologoa eta Salamancako Unibertsitateko irakaslea gonbidatu dute, baita Iñaki Libano arkeologian aditua den barrikoztarra ere. Biek gogoratu dutenez, arkeologia-ikerketek aurkitutako horma-arteari eta artelan higigarriei esker ikus daiteke zer-zelako oihartzuna izan zuten emakumeek historiaurrean. Hala ere, deitoratu dutenez, XIX. eta XX. mendeko gizartearen genero-estereotipoek artelan horien ikerketak markatu zituzten nabarmen, «garaiotan emakumeek ez zutelako horiek ikertzeko aukerarik». Horren ondorioz, urte luzez pentsatu izan da historiaurreko gizarteak patriarkalak zirela, gizon ehiztariak talde horien agintariak zirelakoan. Gaur egun, ordea, egoera nabarmen aldatu da, eta adituek ondorioztatu dute bizirauteko beharrezkoak ziren jarduera denetan parte hartzen zutela gizonak eta emakumeak, salbuespen barik.

Historiaurrea milioika urtek osatzen dute; hori dela eta, ezin da modu orokorrean esan zein izan zen emakumearen papera denbora-tarte oso horretan. Horren ordez, zertzelada txikiak eman daitezkeela azaldu du Olivia Rivero arkeologoak, Paleolitotik hasita. Etimologikoki «Harri Aro Zaharra» esangura duen garai hori gizon-emakumeek bizi izan duten arorik luzeena da, gizakiak sortutako lehenengo kulturatik hasi (k.a 3 milioi urte) eta k.a 10.000 urte arte hartzen duena. Denbora luze horretan, gizaki mota ezberdinak sortu eta galdu egin dira munduan zehar, gaur egun ezaguna den Homo Sapiens gizakia gailendu zen arte. Paleolitoko gizataldeak nomadak ziren, eta ehizan zein bilketan oinarritzen zuten euren bizimodua. Riverok dioenez, talde horietan ez zegoen inolako banaketarik ezta bereizketarik ere, eta kide denek behar denak egin zezaketen bizirauteko.

Garai luze horretako emakumeak elikagaien bilketara eta horien prestaketara lotuta egon dira historikoki, baita zaintza-lanetara ere. Izan ere, ugalketaren protagonistak dira emakumeak. Horrez gainera, emakumeak taldearen biziraupena bermatzeko oinarria ziren, baita zaintzarako, mantentzerako eta jakituriaren eta baloreen transmisiorako ere. Gizataldeak handitzea beharrezkoa zen horien biziraupenerako, eta emakumeak ziren hori bermatzeko ahalmena zutenak. Gainera, egindako azken ikerketek ondorioztatu dute taldeko gainontzeko kideagaz batera, bestelako lehengaiak lortzeko zereginetan parte hartzen zutela bere, hala nola ehizan eta arrantzan. Eginkizun horiek berebizikoak ziren bizirauteko; hori dela eta, normala zen gizatalde horietako kide denek zeregin horietan denetan parte hartzea. «Unean-unean lan egin eta bizi behar zuten. Horretarako, denen laguntza ezinbestekoa zen», azaldu du Iñaki Libano adituak. Riverok gogoratu duenez, oraindino oso gutxi jakin daiteke Paleolitoko garai horretaz, eta dakiten apurra artelanen irudikapenen eta hilobiratzeen interpretazioaren ondorioa izan da. Arkeologoak azaldu duenez, berbarako, aurkitutako emakumeen hezurrei esker jakin ahal izan dute historiaurreko emakumeek ahalmen fisikoa izugarria zela, «gaur egungo emakumeena baino askoz ere handiagoa; eliteko kirolariak baino indartsuagoak ziren». Riverok dioenez, hori normala da, garai hura glaziazioetan murgilduta zegoelako, tenperatura aldaketa izugarriakaz: «Klima oso gogorra zen, eta animalia handiakaz lehiatu behar ziren bizirik irauteko. Gainera, amatasuna garai horietan oso zaila izan behar zenez, uste dugu orduko emakumeek gaur egungoak baino ahalmen handiagoak izan behar zutela».

EMAKUMEAREN IRUDIA. Paleolitoaren hasiera-hasieratik agertu izan da emakumearen irudia nongura, jainkosa baten eredu. «Aztarna gutxi dugu, baina esan genezake emakumea sakratua izango balitz bezala hartzen zutela», azaldu du Riverok. Irudiok

a berdinzaleagoa zen



Olivia Rivero arkeologoa kobazulo bateko aztarnak ikertzen. © OLIVIA RIVERO

jainkosaren kosmogonia irudikatzen zutela uste da; ugalkortasunaren eredu modura, emakumearen gorputza irudikatzen zuten, titiak, ipurmamiak eta alua guztiz nabarmenduta. Adituek nabarmendu dute irudiok ez dutela bururik ezta oinik ere, «gorputza bakarrik». Hori dela eta, ondorioztatu dute ez direla pertsona jakin baten isla, ez dutelako ezaugarri bereizgarriak, baizik eta ideia baten irudikapenak, venusarenak edo jainkosarenak, alegia: «Kosmogonia bat azaldu gura izan zuten irudi horiekaz, ideologia bat edo agian erlijio bat ere», Riveroren arabera. Paleolitoko venusetan ezagunena Willendorfekoa da, Josef Szombathy arkeologo austriarrak Danubioko ibaiertzean aurkitutakoa, 1908an. Adituek diotenez, hasiera batean venus-izaera eman zitzaien estatua txiki horiei, historiaurreko edertasunaren eredu irudikatzen zutelakoan. Gerora ideia hori baztertu egin da, baina oraindik dute izena.

Venusen irudi eta eskulturez gainera, emakumeen eskuen inpresioak aurkitu dira hainbat kobazulotan. Arkeologoaren arabera, horrek esan gura du emakumeek ere parte hartzen zutela garai horretako artegintzan, eta ez soilik gizonek, orain dela gutxira arte uste zen bezala.

LANAREN BANAKETA. Esan dugunez, Paleolitoan zehar, gizataldeko kide denek parte hartzen zuten bizirauteko beharrezkoak ziren jardura denetan. Horrez gainera, emakumeak umeen zaintzaz arduratzen ziren, besteak beste. Neolitoan, aldiz, azken horien papera aldatu egin zen gizartearen.

Riverok aitortu duenez, zaila da jakitea noiz eman zen lanaren banaketa gizonen eta emakumeen artean. Hala ere, egindako ikerketen arabera uste da Neolitoan jazo zela, gizarteak sedentario bihurtzen hasi zirenean, hain zuzen ere. «Une horretan gizataldea hierarkizatzen hasi zen, baina ez bakarrik sexuaren arabera, baita klase sozialen eta lurraldearen arabera ere. Hala, hierarkizazio horrek lanaren banaketa eragin izan zuela uste da», arkeologoaren berbetan.

Neolitoko artelanak, Paleolitoan ez bezala, eszenografikoak dira. Garai horretako irudiek egunerokotasuneko jardue-

Garai batzuetan emakumeen irudikapenak nagusitzen ziren beste denen artean.



Arlanpeko Dama

Arlanpeko kobazuloan, Lemoan, harriaren gainean egindako grabatuak dira, 2011n topatutakoak. Emakume-itxurako grabatu eskematikoak dira eta arrokaren bi aldeetan agertzen dira. Irudietako bitan lehen marrak bakarrik ikusten badira ere, beste bat osorik dago. Enborra, besoak, hankak eta burua ditu, eta estilo horrek bat egiten du Europaren erdialdean eta Frantzia aurkitutako antzeko grabatuakaz. Magdaleniar garaikoak dira, Gönnersdorf-Lalinde izeneko tipokoak.

rak aurkezten dituzte, hala nola emakumeak ezta batzen, emakumeak haurdun eta emakumeak umeak zaintzen. «Ez dira asko, baina daudenak zaintza-lanei lotutakoak dira», azaldu du Riverok. Izan ere, emakumeak Paleolitoko irudietan nagusi ziren arren, Neolitoan gizonek hartu zieten lekukoa. Hala, ohikoa da garai horretako artelanetan gizonen irudiak aurkitzea ehizan edo elkarregaz borrokan. «Garai horretako biolentziatzeko eszena asko dago, eta den-denetan gizonezkoak dira protagonista. Horrek erakuts dezake emakumeak bizipen horietatik alboratuta bizi zirela», argitu du adituak.

HISTORIAURREKO GIZON-EMAKUMEAK, BIZKAIAN. Euskal Herrian gizakiaren berri ematen duten daturik zaharrenak Behe Paleolitokoak dira, orain dela 200.000 urtekoak, hain zuzen ere. Garai horretako hezurrik ez da topatu, baina bai harriar landutako tresnak eta lanabesak, Acheulear kulturari dagozkionak. Horien aztarnak aurkitu dituzte Getxoko Zientzietxe eta Leioako Kurkudi aztarnategietan, besteak beste, baina arrasto isolatuak dira. Ostera, gurean oso aberatsa da Erdi Paleolitoa, Neander-taleko gizakiaren garaia, alegia. Horien aztarna ugari dago inguruotan, haitzuloetan zein aire zabalean, Mousteriar kulturakoak. Hala ere, Goi Paleolitoko aztarnak dira nagusi Euskal Herrian, lehenengo gizaki modernoarenak, berbarako Aurignac eta Gravettiar kulturakoak.

Iñaki Libano aditu barrikoztarrak gogorarazi duenez, historiaurreko 65 aztarnategitik gora daude katalogatuta Uribe Kostan, eta horietan Behe Paleolitotik erromatarren garaira arteko aztarnak aurki daitezke. Denen artean, nabarmentzekoa da Barrikako Aranbaltzakoa. Bertan orain dela 120.000 urteko aztarnak aurkitu dituzte, Erdi Paleolitoko Mousteriar kulturakoak. Eskualdeko aztarnategi horietan askotariko lanabesak aurkitu dituzte, silexean landutakoak. Horren harira, Libanok uste du emakumeek ere parte hartu zutela horien lanketan: «Ezinezkoa da jakitea nork egin zuen lanabes bat edo bestea, baina garai horietan denek parte hartu behar zuten erreminta horien produktioan. Momentuan landu behar zituzten eta denen laguntza ezinbestekoa zen».

Arteari dagokionez, aztarnarik ez dago Uribe Kostan, baina bai Bizkaian. Europa mendebaldeko arte-korrontea zegoen hemen, eta animalien irudiak ziren nagusi; hala ere, garai zehatzetan emakumeen irudikapenak nagusitzen ziren beste denen gainetik. «Goi Paleolitoko Gravettiar eta Magdaleniar kulturetan emakumezkoaren presentzia nabarmena da Europa osoan, baita Euskal Herrian ere. Horrek esan gura du une horietan emakumearen papera oso garrantzitsua izan zela gizarte horietan, gizataldeen gakoak ziren», azaldu du Olivia Riverok.

Bizkaian, emakumearen irudikapenik ikonografikoena eta esanguratsuenak Arlanpeko Dama da. Lemoako Arlanpeko kobazuloan aurkitu zuten, 2011n, Joseba Rios Garaizar arkeologo algortarraren zuzendaritzapean. Emakume-itxurako grabatuak dira, harri handi batean egindakoak, orain dela 17.500 urte inguru, eta horietako bat osorik dago. Grabatu horiek oso eskematikoak dira, eta arrokaren alde bietan agertzen dira. Irudietako bitan lehen marrak bakarrik ikusten badira ere, beste bat oso-osorik dago. Enborra, besoak, hankak eta burua ditu, eta estiloak bat egiten du Europaren erdialdean eta Frantzia aurkitutako antzeko beste hainbat grabatugaz, eta horrek batasun kulturala adieraziko lukeela ondorioztatu dute irudi hori aurkitu zuten adituek.

Grabatuen funtzioa edo esangura ez da argia. Arkeologoaren arabera, ustez ehiza-lekua zen leku batean grabatutako arroka bat egotea ez da azaltzeko erraza, baina baliteke errituak egiteko gune bat sortu gura izateagaz lotuta egotea. Azalpen hori bera proposatu dute Kantauriko beste leku batzuetarako ere. ◀

HIRUKAren berbaldi irekiak

Berbaldi irekia!
*Elikagaien salmenta zuzena:
Nori erosi behar diogu jatekoa?*



URRIAK 18, eguna - 19:00
ETXEANDIA GARAGARDOAK
Igeltzera pol., 12 - Urduliz

Gonbidatuak:
Jon Etxeandia, garagardogilea.
Gabi Basañez, okela-ekoizlea.
Jabi Peña, esneki-ekoizlea.
Haizea Bengoetxea, marmelada-ekoizlea.

Antzerkia

Urriak 20, zapatua

Anton Garai kortsarioa

20:00 | Eliz plaza | Plentzia

Euskaraz. Sarrera, doan. Urriaren 27an, Gorlizko Eliz plazan aurkeztuko dute herri-antzezlan hau.

Erakusketak

Azaroaren 4ra arte

Soka: euskal dantzaren urratsetan

Romo Kultur Etxea | Getxo

Iparra Galdu Gabe jardunaldien barruan. Doan.

Ikastaroak

Urriak 21, domeka

Ardo-dastaketa musikatua

13:00 | Romo Kultur Etxea | Getxo

Irulegiko (Nafarroa Beherea) ardoak dastatuko dituzte, Jon Martinez sommelierragaz. Bitartean, Maria Arriagak eta Jone Gisasolak joko dute. Euskaraz. Doan. Izen-ematea: 944 660 022

Mobilizazioak

Urriak 22, astelehena

Pentsiodunen elkarretaratzea

12:00 | Telletxe plaza (Algorta) | Getxo

Getxoko Pentsiodunen Elkarrekin deituta.

URDULIZ | Elikagaien salmenta

zuzena Eskualdean berbaldiak eta topaketak antolatuko ditu HIRUKAk udagoieneko eguenetan, herriz herri hainbat gairen gaineko eztabaidak piztu eta ekimen parte-hartzaileak sustatzeko. Era berean, gure komunikazio-proiektuaren egoeraren berri emango dugu. Hurrengo hitzordua Urdulizko Etxeandia garagardotegian izango da, urriaren 18an, arrastiko 19:00etan; sarrera, doan. Jon Etxeandia, Gabi Basañez, Jabi Peña eta Haizea Bengoetxea ekoizleen eskutik, jatekoa nori erosi behar zaion aztertuko dugu.

Musika

Urriak 18, eguna

Hippie Johnny

20:30 | Piper's taberna (Algorta) | Getxo

Sarrera, doan.

Urriak 19, barikua

Erandioko Kantagunea

19:30 | Irailaren 23a plaza (Altzaga) | Erandio

Parte-hartzea libre.

Josu eta Unai

23:00 | Novak taberna (Astrabudua) | Erandio

Euskarazko kantu zahar eta berriak. Sarrera doan.

Bere azken diskoa aurkeztuko du Ruper Ordorika abeslariak



AREETA | Guria ostatua Kontzertua

urriaren 20an izango da, zapatuan, musika-eskolan, 20:00etan.

Sarrerak 15 euroan daude.

Euskaraldia

Getxo

Urriak 20, zapatua

17:30 / 20:00 Euskaraldia Sorginzulon ikuskizuna, Algortako Begoñako gazteluan. Lehenengo saioa gaztelaraz eta bigarrena euskaraz. Gonbidapenak agortu arren, itxarote-zerrenda osatu dute, baten batek kale egingo balu.

21:00 Begoñako gazteluko galerietako kanpoaldean kobazuloa ezkututzen duen horma modu artistikoan botako dute.

Urriaren 26ra arte

Ahobizientzako eta Belarriprestentzako prestakuntza-saioetan izen-ematea. Informazio gehiago eta izen-ematea: euskaraldiagetxo@gmail.com

Leioa

Urriak 19, barikua

18:30-20:30 Euskaraldiaren informazio-banaketa eta izen-ematea, kiroldegiko kubo metafisikoan. Musika eta jolasak egongo dira.

Urriak 23, martitzena

19:00-20:00 Belarriprest izango diren trebakuntza-saioa, Kultur Leioako prentsa-gelan. Izen-ematea: leioaztarrak@gmail.com

Plentzia

Urriak 20, zapatua

Euskaraldiaren Ariketa, Ontziola plazan **10:15** Izena emateko mahaia.

10:30-12:30 Ibilaldiak, itsasadarrean eta hiribilduan zehar. Izen-ematea: euskaraldiaplentzia@gmail.com

10:30-13:30 Umeentzako tailerrak, horien artean sukaldaritza, Txakinarto taldeagaz.

11:30-12:30 Ipuin-kontalaria.

12:30-13:30 Mintzodromoa.

13:30 Pintxo-dastaketa eta jaiaren bukaera.

Sopela

Urriak 18, eguna

18:30 Herriko Hamaikakoaren aurkezpena, Jauregizar plazan. Horrez gainera, bertso-saioa egingo dute Paule Loizagak eta Unai Mendiburuk. Eta plaza-dantzak egongo dira, Meñakoz kultur elkarteko trikitilariakaz eta panderojoleakaz.

«Alma Mater» Gerra etxe barrutik

Jatorrizko Izenburua: *Insyriated*
Zuzendaria/Gidoilaria: P. Van Leeuw
Antzezleak: Hiam Abbass, Diamand Bou Abboudargazk

Urriak 23 - 20:00
Leioako Kultur Etxea



Siriako gerrari buruz gordin berba egiten duen film hau Philippe Van Leeuw-ek zuzendari eta gidoilari modura sinatzen duen bigarren lana da, eta ikusleen saria jaso du hainbat zinemalditan.

Bi familia elkarregaz bizi dira babeslekua dirudien etxean.


Kanpoan bonbardaketak, frankotiratzaileak eta lapurrak entzuten dituzten bitartean, zelanbaiteko errutinari eusten saiatuko dira, etxeoandarearen gidaritzapean.

Asko dira bataila famatuak, heroiak edo ageriko bortizkeria erakusten dituzten filmak. Zailagoa da egunez egun gerra batean harrapatuta egoteak zer ekar dezakeen islatzea. Zelan egin aurre eguneroko beldurrei, koldarkeriari, hil edo biziko egoerei? Zelan asmatu zure hurkoak babesteko erabaki onenak zeintzuk diren, eta ondorio latzakak bizitzen jarraitu? Antzezle nagusiek intentsitate handiz gorpuzten dituzten bi emakumeak, amodioari, erruari, ulermenari; azken finean bizitzari beste dimentsio bat ematen diote. Hausnarketa sakona egitera gonbidatzen gaituen istorio gogorra baina eskertzekoa.

hiruka app berria

Uribe Kostako informazio guztia eta agendarik osoena.

- Agenda
- Argazkiak eta bideo albumak
- Albisteak
- Geolokalizazioa
- HIRUKA astekaria
- SOS botoia



Deskargatu!



MENDI-TXANGOAK | Berangoko Ibilaldi Neurtua

Berangoko bazterrez gozatzeko

Datorren urriaren 28an Berangoko Ibilaldi Neurtuaren 36. edizioa egingo du Sei Herri kultur elkarteak. Gazte-talde batek sortu zuen ekimena, herria eta beraren inguruak hobeto ezagutzeko eta euskara bultzatzeko.

IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ▶

Oraindino ibilaldirako aste eta erdi falta bada ere, Sei Herriko kideak jo eta ke dabiltza txangoaren prestaketa-lanetan. Eloi Rodríguez antolatzaile-taldeko partaideak azaldu duenez, «orain dela bi hilabetetik edo» hasi ziren aurtengo edizioa prestatzen: «Urtero berdina egiten dugunez, bakoitzak badauzka daborduko bere ardurak eta gero eta arinago egiten dugu».

Hala, urriaren 28rako honako lanak erabat amaituta izango dituzte: DYAgaz larrialdi-zerbitzua hitzartu, ibilbidea garbitu, bazkaria antolatu, kontroletako jendea lotu, edariak bildu eta sariak erosi eta antolatzea. Dena urtero antzekoa izan arren, nobedadeak izango dira aurren.

Alde batetik, ibilaldi neurturako erabiltzen duten programa eguneratuko dute, lehen eskuz egiten zutelako, hiruko errege-lan bidez; azken urteetan kalkulu-orri bat erabili dute, eta aurren programa informatikoa eguneratuko dute. Beste alde batetik, txalaparta-tailerra lotu dute umeentzat, iazko ipuin-kontalariaren ordez.

Ohi legez, prestatutako ibilbideak Uribe Kosta zeharkatuko du, eta goizean goiz hasiko dira izen-emateak Sei Herri herriko tabernan. Antolatzaileek 250-300 kirolzale espero dituzte. Nagusien ibilbideak hamasei kilometroko luzera du, eta txikienak zortzikoa. Nagusien kasuan, 08:15ean egin beharko dute izen-ematea, eta txikiek, oster, 09:00etan. Ordu horretan aterako dira helduak, eta txikiak ordu erdi geroago.

IBILALDIA AMAITUTA, JARDUERA GEHIAGO. Mendi-bueltaren ostean, egitarau zabalaz ospatuko dute egun berezia. Lehenengo eta behin, bertako elikagaien azoka egongo da 12:00etatik aurrera. Ordu erdi beranduago, txalaparta-tailerra egingo dute, Nagusien Etxeko ondoko plazan. 14:00etan, aldiz, bazkaltzeko ordua izango da frontoian. Ibilaldian parte hartuko duten umeek doan bazkaldu ahal izango dute; gainontzekoek zazpi euro ordaindu beharko dute. Bazkariaren ondoren, umeek ani-



Ibilbide luzeak hamasei kilometro dauzka, eta txikienak, oster, zortzi. © SEI HERRI KULTUR ELKARTEA

Gomi akorduan

Aisialdirako ekintza legez sortu zen Berangoko Ibilaldi Neurtua. 1980ko hamarkadan mendira joateko ohitura puri-purian zegoen eta Berangon halako zer edo zer egitea pentsatu zuten. Bigarren urtean, antolatzaileetako bat, Imanol Fernandez Gomi gaztea, ezbehar batez hil zen, eta ordutik haren oroimenez antolatzen dute mendi-txangoa urtero-urtero, hutsik egin barik.

maziozko filma izango dute ikusgai Berangoeta kultur etxean. Helduen bazkariaren ostean, oster, sari-banaketa hasiko da.

Ibilaldiaren inguruan sortzen den giroa «euskalduna eta osasungarria» dela uste du Rodríguez: «Edozein aste-akabuan egin daitekeen ibilbidea da, baina jendea animatu egiten da egun hau dela eta; lagunak elkartzeko jardura bat da, ibilbidea aitzakiatzat hartuta».

Parte-hartzaileei aholku «garrantzitsua» eman gura die Rodríguez: «Geziei jarrai diezaietela, askotan gertatu baitzaigu jende berria etorri dela ibilbidea egitera eta ondokoagaz berbetan ibili eta despistatu egin dela, jendeari jarraituz; jendea bi-detik irten eta galdu egin dela». Antolatzaileek gomendatu dutenez, «mendiko botak hartu, txubaskeroa ez ahaztu, motxila gogoz eta indarrez bete eta erdu Ibilaldi Neurtura!». ◀



Gatzarriñe bidea, 47 · 48600 SOPELA info@anderdeuna.eus
946 760 266 · 689 01 04 28 www.anderdeunaikastola.eus

OIHANE ALBIZURI SILGUERO | Motor-pilotu lemoiztarra

«Jauzi handi barik, dena segidan joan da mundukoraino»

IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ▶

Oihane Albizuri pilotuak 20 urte beteko ditu zapatuan. Halere, oparia irailaren azken aste-akabuan jaso zuen: munduko moto-kroseko lehian estreinatu zen, Italiako Imola zirkuituan. 28. sailkatuta, pozik dago.

Zelan ibili zinen Imolan? Ondo. Zapatuan izan genituen entrenamenduak eta lehenengo txanda; ez zitzaidan ondo atera, oso urduri nenbilen. Ez neukan kanpoko presiorik, baina nik neuk ipini nion neure buruari, postu onen bat lortzeko. Ez nengoen lasai, ez nenbilen bat motorrakaz, ez ziren denborak atera: kostatu zitzaidan. Hurrengo egunean beroketa egin genuen eta segidan bigarren txanda. Horretan askoz hobeto ibili nintzen, trankilago, eta arretaz jokatzeko. Lagun batzuek aholkuak eman zizkidaten eta horrek lagundu zidan.

Zer sentitu zenuen pistan zeundela? Zapatuan urduritasuna, baina domekan askoz erlaxatuago egon nintzen. Barnetik urduritasuna beti daukat, baina askoz lasaiago eta oso pozik ibili nintzen. Bizipen harrigarria izan da. Asko ikasi dut.

Zapatuan hamaika urte beteko dira BECen jendetzaren aurrean lehenengoz jardun zenuenetik. Zer gogorapen duzu une hartaz? Uste dut ez zela hori nire lehenengo txapelketa izan. 2006an hasi nintzen lasterketetan parte hartzen, 8 urteaz. Momentu hartaz gogoratzen dudana da atera eta bihurtu bi egin bezain laster gelditu nintzela, beste pilotu batek, jauzi eta azkena geratu nintzela. Esataria daukat gogoan, animatzen: «Tira, neska bat, Oihane...». Oso handi egin zitzaidan BEC eta jende asko zegoen niri begira, baina oso polita izan zen.

Zer balorazio egiten duzu handik gaur egunera arteko ibilbideaz? Ez dut jauzi handirik egin, dena segidan joan da: gero eta gehiago, gero eta gehiago. Hasi ginen Euskadiko txapelketagaz, gero BECena, gero Espainiako...; munduko txapelketa



Bizkaian emakumezko motokros-pilotu bi besterik ez dago: Albizuri eta 13 urteko neskato bat. OSKAR GUTIERREZ



Munduko lehian errepikatzeko prest

Datorren urtean munduko lehiaketako probetan jardungo duen galdetuta, Albizurik segundo erdia baino ez du behar izan barrutik atera zaion erantzun sendo eta grinatsua emateko: «Bai». Ondoren, lasaiago azaldu du: «Proposatu didate eta bai, segur aski bai. Ez proba denetara, ikasten nabilelako eta motorretik ezin dudalako bizi. Ahaleginduko naiz datorren urtean lasterketaren bat egiten eta ea zer ateratzen den».

horren jarraipena izan da, zelanbait. Beti oso pozik ibili naiz, familiagaz. Beti ahalegindu naiz hoberena egiten.

Azken urteak ez dira alaiak izan, ezta? 2016ko irailaren 10ean istripua izan nuen. Ia-ia urte bi galdu nituen. Istripua izan ondoren urtebete eman nuen berriro ere motorrera igo arte eta, gainera, aurtengo otsailean berriz operazio-gelatik pasatu behar izan nuen, hankan beste ebakuntza bat egiteko.

Pentsatu zenuen motorra uztea? Ez. Nik badakit noraino ailegatu ahal naizen eta konfiantza daukat, motorra kontrolatzen badakit, urte asko daroat. Istripu hori ez zen nire erruz gertatu.

Aurten zelan ekin zenion denboraldiari? Gogotsu, baina latza izan zen: otsailean ebakuntza egin eta gero hilabete eta erdi eman nuen makuluakaz. Nire kabuz ibiltzen hasi bezain laster bakarrik entrenatzen hasi nintzen, aste bi, eta Espainiako txapelketara joan nintzen. Oso gogorra izan zen. Motorrean ondo prestatuta joan beharra dago, gorputzak ez du barkatzen.

Zelan finantzatzen duzu kirol-jarduerak? Aitak eta amak mantentzen dute; ni ikasten nabil. Gainera, badaukat hainbat jende laguntza ematen didana, eta hori eskertzekoa da. Berbarako, García Motos, Deusto Moto Center eta Ipone dira nire babesleak. Garrantzitsua da euren laguntza. Dena den, nagusiki aita eta ama dira bultzatzaileak. ◀

AIXERROTA BHI
IKASTETXEA

DBH: B eta D ereduak + ikasgaiak ingelesez
DBH 1: Natur zientziak (Euskara/English)
DBH 2: Matematika (Euskara/English)
DBH 3: Fisika eta Kimika (Euskara/English)
DBH 4: Matematika eta Musika (Euskara/English)

BATXILLERGOA: D ereduak + ikasgaiak ingelesez
• Zientzia modalitatea
• Giza eta Gizarte zientzietako modalitatea

SAT/ZIG: Zeregina ikasteko gela

euskaraz bizi nahi dut

INFORMAZIO +
Santa Marina Haitza 14
48993 GETXO
944 911 786
www.aixerrota.hezkuntza.net

On-line denda

Bio Zelai

www.biozelai.com

Elikagai ekologikoak

Ekoizleak eta banatzaileak

Etxez etxeko zerbitzua

info@biozelai.com | T: 685.798.567 | GATIKA (Bizkaia)

URIBE KOSTA | HIRUKA jardunaldiak

Zer asmo daukazu datozen eguenetarako?

Uribe Kostakoa eta euskalduna bazara, udagoieneko eguenetarako hitzordua proposatzen dizu HIRUKAk. Herriz herri, hainbat gai jorratuko ditugu, zenbait kasutan jolas-giroan, abenduaren 13ra arte; bide batez, gure komunikazio-proiektuaren egoeraren berri emango dugu. Hurrengo saioak honakoak izango dira: urriaren 18an, «Elikagaien salmenta zuzena: nori erosi behar diogu jatekoa?», Urdulizen; urriaren 25ean, Joseba Rios arkeologoari elkarrizketa, Barrikan; eta azaroaren 8an, «Lan-merkatuaren bilakabidea: gaurko gazteak jubilatuta ahal izango gara?», Berangon.



LEIOA | Ustezko sexu-abusuak

Gazteluetako irakasle ohiarentzat hiru urteko zigor-eskaerari eutsi dio fiskalak; hala ere, hogeit hamar hilabete izango lirarteke eta ez lukete kartzelatuko.

LEIOA | Ustezko bortxaketa

Duela urte bi ustez 14 urteko neska bortxatu zuen gizona absolutu egin dute, «froga biologikoak beste egile bat seinatzen» dutelakoan.

BARRIKA | Sutea Barrikabason

Urriaren 12an sutea isiotu zen San Telmo auzoko basoan. Garra amatatzeko lanetan kea irentsi eta itolarria izan zutela eta, suhiltzaile bi artatu zituzten.

GETXO | Galeako Olatu Handia

Hasi da itxarote-aldia, martxoaren 31ra arte. Nazioarteko surflari ezagun batzuek daborduko baieztatu dute lehiatu egingo direla.

ERANDIO | Lan-gatazka

Loramendiko langileek greba mugagabeari ekingo diote

Erandioko Sanitas Loramendi zahar-egoitzako langileek lan-baldintzen aldeko borroka gogortuko dute. Hala, urriaren 20tik aurrera, lanuzteetatik greba mugagabera pasatuko direla ohartarazi dute.



URIBE KOSTA | Bizkaiko Bertsolari Txapelketa

Malen Amenabar larrabetzuarrak irabazi du Santurtziko kanporaketa

Larrabetzuarrak lortu zituen puntu gehien, 480,5 puntu, Santurtzin. Beraz, Bizkaiko Bertsolari Txapelketan Igorreko finalaurrekoan kantatuko du azaroaren 25ean. Arrate Illaro eta Ekaitz Larrazabal Katxo algortarrak hirugarren eta seigarren geratu ziren.



UNAI REMENTERIA | Itsasadarraren azpiko tunelaren harira

«Tunela abian dago, ez du atzera egiterik. Aurreikuspenen arabera, 2027an egongo da operatibo»



KAZETARITZA FAKULTATEKO IKASLEAK | «Seguratak kanpora!»

«Aurreko ikasturtetik hona sekulako kontrol soziala pairatzen ari gara: bideo-kamerak nonahi, guardiak...»

22

kirol-modalitate eskainiko dizkie Getxoko Udalak Lehen Hezkuntzako ikasleei. Zapatuan, hilaren 20an, hasiko da eskola-kiroleko udal-programaren denboraldi berria, Gobelan.

UKn zer kultura kontsumitzen da?



Kulturaz jardun genuen joan den egunean Gorlizko Xurruet tabernan.



hiruka

HIRUKA kooperatiba elkartea

Helbidea: Martikoena, 16, 2.a - 48992 GETXO
e-posta: hiruka@hiruka.eus
Posta-kutxa: 171
Telefonoa: 944 911 337
Publizitatea: Idoia Lorente
Erredakzio-burua: Unai Brea
Erredakzioa: Iker Rincon, Kepa Ugarte, Iñigo Fernandez de Martikorena
Argazkiak: Oskar Gutierrez
Diseinua: Artefakto
Kudeaketa: Ziortza Merino
Kolaboratzaileak: Alazne Palacios, Kerman Santiago, Asier Barruetabeña
Filmazioa eta Inprimategia: BEPSA
Lege-gordailua: BI-2022-2014
ISSN: 2386-98-95
Ale-kopurua: 8.000
CC-BY-SA

Erakunde laguntzaileak



Bizkaia

foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura eta Hizkuntza Politika
Sailak (Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzak) diruz lagundua.

HIRUKAlagunen txokoa

Non dago? Lehiaketa

Producciones Serranoren ekimenez, Cara Dillon artistaren kontzertuaz gozatzeko hiru sarrera bikoitz zozkatuko ditugu

Urriaren 28ko (domeka) kontzertura hurreratzeko sarrera bikoitza lortu gura baduzu, urriaren 23a (martitzena) baino lehenago bidali erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337.



Urriko saria



Uda ostean erlaxatzeko sorta, Jabonarte dendaren ekimenez

Erandioko komertzioari esker, sari hori zozkatuko dugu HIRUKAlagun eta bazkide denen artean.

Zozketan parte hartzeko, bidali urriaren 31 (eguztzena) baino lehenago zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337.

Zelan egin HIRUKAlagun?

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna
Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus
Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.

Abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babes Legearen 15/1999 Lege Organikoaren arabera, erabiltzaileek HIRUKAri emandako datuak fitxategi automatiko batean sartuko dira, erabiltzaileagaz harremanetan ipintzeko eta HIRUKAren informazioa eta publizitatea helarazteko soilik. Erabiltzaileak datuok zuzentzeko edo kentzeko helbide honetara idatzi dezake: hiruka@hiruka.eus

Sudokua

						8	
		6	4	8			
4					7		2 5
		9	3				
	1					3	8
2			1	7			
			8				
7	2						1
9	5		1				3

				9	2		
						8	
		2	4	7			
		4		9		1	5 2
		5	1		2		
					6		7
7	4	3			1		9
	8					5	1
5						3	

Soluzioak

Gogoan har egizu 1etik 9ra arteko zenbaki denek agertu behar dutela zutabe, ilara eta azpilauki bakoitzean.

9	4	3	7	8	6	1	2	5
1	5	7	2	4	3	8	6	9
6	2	8	1	5	9	3	4	7
3	2	4	6	9	5	8	1	7
8	9	7	2	3	1	5	7	6
5	1	5	2	6	8	7	9	3
1	6	9	5	7	4	2	3	8
8	5	7	3	1	2	6	9	4
3	4	6	8	9	7	5	1	2

3	9	2	4	1	7	5	8	6
1	6	8	5	3	9	7	2	4
4	5	7	9	1	8	2	3	6
6	5	9	7	8	1	3	4	2
8	4	3	6	9	2	7	5	1
1	2	5	7	4	3	6	9	8
5	7	1	2	3	6	8	9	4
7	3	6	2	8	4	9	5	1
4	8	6	1	5	9	2	7	3

Hitza emanda

Lana

Asko ikas dadila!
Lana topa bedi!
Guk hori entzun eta esanari segi.
Askotan, baina, aski ez dira bi begi:
batzuek gehiegi (e)ta beste(e)k gutxiegi!



ITXASO
PAYA RUIZ
Algorta



Mundukatuak **Potosí**

«Hiriaren izena aberastasunaren sinonimoa da, meategiei esker»



Jonás Aguilar

Nongoa
Potosí (Bolivia).


Adina
33 urte.

Zertan dabil
Fruta-denda batean lanean.

Ikasketak
Batxilergoa, Lanbide Heziketa.

Noiz heldu zinen?
2006an.

Noiz arte berton?
Betiko.



Lurraldea
Boliviako Estatu Plurinazionala.

Azalera
1.098.581 km².

Hiria
Potosí.

Biztanleria
240.966 (2012).

Hizkuntzak
Boliviako legediak 37 hizkuntzari aitortzen die ofizialtasuna. Nagusia gaztelania da, ia denek dakitena. Bertakoen artean kitxua da zabalduea (boliviarren % 25ek dakite), eta horixe da hain zuzen Potosín egiten dena. Eskolan ikastea derrigorrezkoa da. Hitzun ugari dauzkate aimarak eta guaraniak ere.

Moneta
Bolivianoa.

TESTUA: UNAI BREA ARGAZKIA: DANIELLE PEREIRA ▶

Bolivia hegoaldean jaiotakoa da Jonás Aguilar Calla, Potosí inguruan. «Hiriaren izena aberastasunaren sinonimoa izan da», gogorarazi digunez, «meatzaritzari esker». Garai bateko loria apaldu bada ere, oraindino meategitik bizi dira Potosíko biztanle asko, Aguilarren aita bera esate baterako. Hala ere, hiritik kanpo, eskualde osoan, nekazaritza eta abeltzaintza dira nagusi.

Potosíren kokapenak zerikusi handia dauka bere bizimodua-gaz: batez beste 4.000 metroko garaiera du, eta honenbestez 100.000 biztanletik gorako munduko bigarren hiririk altuena da (lehenengoa ere Bolivian dago: El Alto). Ondo jakina denez, horrek arazoren bat edo beste eman diezaioke itsasoaren mailan ibiltzen ohituta lehenengoz hara doanari. «Ni neu ere Santa Cruzen bizitzen eman nuen denboraldi bat, baxuago dagoen Boliviako beste hiri batean», gogoratu du Aguilarrek, «eta behin, Potosíra bueltatuta, futbol-partidu bat jokatzen hasi eta hamar minutugarrenean

utzi behar izan nuen, arnasa hartu ezinik». Altuera handiak, bestalde, klima oro har hotza izatea dakar (neguan ohikoa da -15 °C-ra baxatzea), «eta horregatik jendea gutxi ateratzen da gaez». Aldi berean, eguzkiak gogor jotzen du, eta komeni da azala babestea. Garaierari aurre egiteko koka-hostoa hartzea da onena, Aguilarren esanetan: «Gosea eta mina ere kentzen ditu; tripako minagaz bazabiltza, infusioa hartu eta ez duzu botikarik beharko». Potosín, denda askotan eros daiteke koka-hostoa, dioenez.

Altuera ez da oztopoa Potosík turistak erakartzeko, Jonás Aguilarrek azaldu digunez. Hiriko amu ezagunena bere historia oparoaren ikur nagusia da: Cerro Rico, kitxuaz Sumaq Urqu (Muino Ederra), garai batean munduko zilar-meategi garrantzitsuenen kokagunea izandakoa. Gaur egun meategi horietako bati bisita egin dakioke. Hirian bertan, azpimarratzekoak dira hainbat monumentu eta eraikin, Monetaren Etxea batez ere. Eta Potosítik ordu batzuetara, turista askoren helmuga kutun bihurtu den Uyuni gatz-basamortua dago, munduko handiena (Nafarroaren azalera bera du, gutxi gorabehera), gatzaz egindako hotela eta guzti. ◀